

2015 UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

Literatura unibertsala

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
- Pregunta 2: 2 puntos.
- Pregunta 3: 3 puntos.
- Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.

TESTUA

Gorputzeko sentsazio berezi batekin, zerbaitek aurrera bultzatu baina halaber bere buruari eutsi beharra baleuka bezala, lehen kolpe bizkor erabakigarria jo zuen. Pintzela beheara jaitsi zen. Dardara marroi bat azaldu zen oihal zuriaren gainean; arrasto luze bat geratu zen. Bigarren aldiz egin zuen — eta hirugarren aldiz. [...]; horrela, ez tiro eta bizkor geldituz eta igurtziz, lerro marroi luze urduriekin zeharkatu zuen oihala, bertan ezarri orduko itxitura bat sortzen zutelarik (bere aurrean sentitu zuen izugarri sortzen). Olatu baten barrenean hurrengo olatua ikusi zuen, bere gainetik gero eta gorago dorrea adina igotzen. Zer egon zitekeen itxitura hura baino beldurgarriagorik? Hona non zegoen bera berriro, pentsatu zuen, begiratu ahal izateko atzerantz joanez, esamesak, lanbidea eta jendeekiko elkarbizitzatik baztertuta eta bere aspaldiko etsai honen aurrera eramanda — gauza honek, egia honek, errealitate honek bat-batean berari eskua gainean jarrita, itxura guztien gibelean elkor zutitu eta arreta edukitzeko agindu zion. Erdi nahiezik zegoen bera, erdi gogoz kontra. Zergatik beti baztertuta eta bultzatua izan? Zergatik ez bakean utzia izan, Carmichael jaunarekin belardian hitz egiteko? [...] Beti (bere izaeragatik edo sexuagatik, ez zekien bietan zein), dariola doan bizitzaren orde z pinturaren trinkotasuna hartu aurretik, biluztasunezko hainbat momentu izaten zuen, arima jaio gabearen antzera, gorputza falta zaion arimaren antzera, tontor haizetsuren batean duda-mudan eta inongo babesik gabe zalantzaren enbata guztien mendean. Zergatik hartan aritu orduan? Oihalari begiratu zion, lerro luzez arinki zeharkatua. Mirabeen logeletan eskegiko zuten. Bil-bil egin eta sofaren azpian galkatuko zuten. Zertarako hartan jardun beraz, eta ahotsen bat aditu zuen ez zekiela pintatzen esaka, ezin zuela ezer sortu, denboraren poderioz buruan osatu ohi diren korrante horietako batek harrapatu balu bezala, hitzak errepikatuz, jadanik jabetu gabe aurren berritan nork esanak diren.

Ez pintatzerik, ez idazterik, murmurikatu zuen modu monotonoan, urduri hausnartuz erasorako zein plan hartu. Bere aurrean zutitzen baitzen masa hura; bere aurrean nabarmentzen zen; begi barrenetan sentitzen zuen haren presioa. [...] Eta zentzua galtzen joan ahala kanpoko gauzei buruz, eta bere izena eta nortasuna eta itxurari buruz, eta Carmichael jauna han ote zegoen ala ez, bere buruak etengabe jaurtitzen zituen barrenetik eszenak, eta izenak, eta esaldiak, eta oroitzapen eta ideiak, barra-barra darion iturria bezala, distira erregarriko zuri-gune haren gainera, itsuski nekagarria, berak berdez eta urdinez modelatu bitartean.

Hori esan ohi zuen Charles Tansleyk, oroitu zen, emakumeek ez dakite pintatzen, ez dakite idazten. Atzetik etorri zuten hura bere aldamenen, gauza gorrotagarriagorik!, bera hementxe bertan pintatzen ari zen bitartean. «Tabako xehatua», esan zuen orduan hark, «bost penike ontzako», bere pobrezia eta printzipioak nabarmen aditzera emanez. «Lanean» ari zela alegia. Eguzki galdetan eseri ohi zen lanera, oroitzen zen Lily. Afalorduan ikusmiraren erdi-erdian eseri ohi zen. Eta horretaz gain, hausnartu zuen, hondartzako eszena hura gertatu zen. Gogoangarria. Goiz haizetsua zen. Denak ziren hondartzara joanak. Ramsay andrea eserita zegoen, gutunak idazten harkaitz ondo batean. Idatzi eta idatzi. Noizean behin Ramsay andreak antiojoen gainetik begiratu eta barre egiten zien. Ez zeukan gogoan zertaz hitz egin zuten, bakar-bakarrik Charles eta biak harriak botaka aritu eta ez non eta ez han oso ongi zetoze elkarrekin, eta Ramsay andrea begira zeukatela. Ederki oroitzen zen. Ramsay andrea, pentsatu zuen, apur bat atzeratuz



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

LITERATURA UNIVERSAL

eta begiak kizkurtuz. (Hura Jamesekin koskan eseri zenean gogotik aldatu bide zen diseinua. Itzalen bat egon bide zen). Ramsay Andrea. [...] Baina hura boterea giza arimarena! pentsatu zuen. Emakume hura han eserita egoteak harkaitzaren babesean idazten, ezin soilago bihurtu zuen dena; zatar zaharren antzera erorarazi zituen haserre eta sumindura guztiak; hau beste honekin eta azkenik harekin elkartu zituen.

2015



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2015eko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2015

LITERATURA UNIVERSAL

A AUKERA

1. Kokatu Estatu Batuetako "Belaunaldi galdua" bere testuinguru historiko eta literarioan. Adierazi belaunaldi horren partaideen ekoizpen literarioa definitzen duten ezaugarri nagusiak, eta aipatu hiru egile eta hiru obra adierazgarri. (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Jarri erlazioan obra eta egilea beren testuinguru historiko eta literarioarekin. (2 puntu)
3. Obra hau eleberri esperimentalarekin eta bere garaiko berritze narratiboarekin erlazionatu ohi da. Azaldu horren zergatia: erakutsi zertan datzan berritze hori, eta adierazi obraren zer ezaugarritan agertzen den. Identifikatu eta seinalatu testuan agertzen diren era horretako ezaugarriak. (3 puntu)
4. Eman zure iritzia obrako Lily pertsonaiari buruz eta bizitzaren aurrean duen jarrerari buruz. Argudiatu zure erantzuna ikuspuntu pertsonaletik eta zure bizipenekin erlazionatuta. (2 puntu).

B AUKERA

1. Narratiba erromantikotik errealismora Europan. Adierazi zer aldaketa agertzen dituen eleberri errealistak narratiba erromantikoaren aldean, eta jar itzazu aldaketa horiek beren garaiko aldaketa historiko-kulturalekin erlazioan. (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Kokatu obra egilearen ekoizpen literarioaren barnean eta egilearen garaiko literaturarekin erlazioan. (2 puntu)
3. Pasartean, bi pertsonaia nagusi ageri dira, Lily eta Ramsay andrea. Pasartean esaten dena abiapuntutzat harturik eta obra osoa kontuan harturik, adierazi nor diren pertsonaia horiek, zer eginkizun duten obran eta zer teknika erabiltzen diren haiek ezaugarritzeko. Azaldu, halaber, zer adierazten duten autorearen biografia eta pentsaerarekiko. (3 puntu)
4. «Hori esan ohi zuen Charles Tansleyk, oroitu zen, emakumeek ez dakite pintatzen, ez dakite idazten». Erlazionatu esaldi hori autore emakumearen bizi-jarrerarekin, eta eman zeure iritzia puntu horri dagokionez. Oinarritu iritzi hori zeure argudio pertsonalekin eta erlazioa ezazu zeure bizipenekin; eta, ahal dela, saihestu konbentzionalismoak. (2 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Badaki zer den “Belaunaldi galdua”, eta behar den bezala kokatzen du bere une historikoan eta bere literatura-esparruan: 1 puntu.
- Modu nahikoan ezugarritzen du belaunaldiaren eleberrigintza: 1 puntu.
- Hiru egile eta hiru obra aipatzen ditu: 1 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzen ditu: 1 puntu.
- *To the Lighthouse* (Itsasargira) eta Virginia Woolf XX. mendeko lehen erdiko eleberrigintzaren berrikuntzaren testuinguruan kokatzen ditu: 0,5 puntu.
- Virginia Woolf XX. mendearen hasierako britainiar gizartearekin eta mugimendu feministarekin erlazionatzen ditu: 0,5 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Eleberri esperimentalaren eta hark narrazioaren forma tradizionalarekin ekarri zuen etenaren azalpen nahikoa ematen du: 1 puntu.
- Berritasun horiek identifikatzen ditu Virginia Woolfen eleberrian: 1 puntu.
- Testuan identifikatzen ditu berritasunok (perspektiba eta ahots narratiboa, zeharkako estilo askea, eta abar): 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematen du.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzen du.
- Gai da obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai da irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Erakusten du badakiela zein diren eleberri erromantikoaren ezaugarriak: 1 puntu.
- Erakusten du badakiela zein diren eleberri errealistaren ezaugarriak: 1 puntu.
- Ohartzen da eleberri errealistara daramaten aldaketak erlazioan daudela aldaketa historiko eta kulturekin: 1 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzen ditu: 1 puntu.
- Ezagutzen ditu Virginia Woolfen obra nagusiak, eta gai da *To the Lighthouse* haien artean kokatzeko eta garai hartako eleberri-esperimentazioarekin erlazioan jartzeko: 1 puntu.

3^a galdera (3 puntu)

- Pertsonaiak identifikatzen ditu, eta obran zer eginkizun duten azaltzen du: 1 puntu.
- Erakusten du nola eta zer teknikarekin ezaugarritzen diren pertsonaia horiek pasartean agertzen denari erreferentzia eginez (kontalariaren perspektiba, zeharkako estilo askea): 1 puntu.
- Azaltzen du zer erlazio duten aipatutako obrak eta pertsonaiek autorearen biografiarekin: 1 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematen du.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzen du. Gai da irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.